

OSO GARRANTZITSUA

Nazioarteko mugikortasun-programaren batean (Erasmus+, Latinoamerika edo Beste Norakoak) parte hartzeko interesa baldin baduzu, honakoak dira ezer egin AURRETIK aintzat hartu behar dituzun funtsezko kontuak:

1.- INFORMA ZAITEZ NORAKOEI ETA PARTE HARTZEKO ARAUEI BURUZ nazioarteko mugikortasun programa baterako eskaera **EGIN AURRETIK**. Ahalik eta informazio gehien eta zehatzena izateak berebiziko garrantzia du prozesua ganoraz burutzeko eta gaizki ulertuak eta ezusteko desatseginak ekiditeko. Horretarako bi kontsulta-iturri nagusi dituzu:

- Zure Ikastegiko Nazioarteko Harremanetarako [koordinatzailea](#).
- Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen Arloko Errektoreordetzaren web orria: <http://www.ehu.es/eu/web/nazioarteko-harremanak/home/>

2.- ARRETA HANDIZ IRAKURRI mugikortasun programa ezberdinei buruzko [informazioa](#). Erreparatu bereziki plaza bat lortzeko bete behar dituzun baldintzei (ikus deialdia). Kontuan hartu Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak ezarri eta UPV/EHUko ikasle **GUZTIEK** bete behar dituzten baldintza orokorrez gain, Ikastegi bakoitzak bereak dituela eta horiek murriztaileagoak izan daitezke (inoiz ez orokorrak baino malguagoak).

3.- Zure eskaera egin aurretik **ZIURTATU** interesatzen zaizun/zaizkizun unibertsitatean/etan **ZURE TITULAZIOKO IKASKETAK ESKAINTZEN DIRELA** (ez da beti hala gertatzen). Horrez gain, kontsulta ezazu haien egutegi akademikoa (Latinoamerikako unibertsitateen kasuan ez da gurea bezalakoa) eta zein iraupen duten eskainitako plazak (lauhilekoak edo ikasturte osokoak).

4.- ARRETA BEREZIA jarri hizkuntza betebeharrei inorako eskaera egin aurretik. Kasu askotan, erabakigarriak dira zure hautaketa egiteko orduan, horiek ez betetzea baztertzeko arrazoia izan baitaiteke. Kontuan izan unibertsitate askotan helburuko unibertsitatean ikasketak irakasten direneko hizkuntza edo beste komunikazio hizkuntza batzuk (ingeleza, adibidez) behar bezala, ondo edo oso ondo jakitea eskatzen dutela, berariazko maila bat eskatzen dutelarik. UPV/EHUK EUEBk eta ACLESEk onartutako ziurtagiri guztiak onartzen ditu, **baina helmugako unibertsitateak berariazko hizkuntza ziurtagiri bat eska dezake (IELTS, TOEFL, Cambridge etab.)**. Ziurtagiri egokia eduki behar duzu mugikortasuna eskatzeko unean edo, gehienez ere, dokumentazioa zuzentzeko epean. Kontsultatu helburuko unibertsitatearen hizkuntza eskakizunak GAUR eta/edo kasuan kasuko

unibertsitatean. Zalantzarik izanez gero, zure ikastegiko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzaileari ere galde diezaiokezu.

5.- Gogorazi, Erasmus programan, ziklo bakoitzeko (gradu, master, doktorego), 12 hileko mugikortasuna egin dezakezula, ikasle praktikak eta mugikortasun laburrak barne.

6.- Nazioarteko Harremanetarako web orrian **“ESKAERA NOLA EGIN. URRATSEZURRATS”** izeneko atalean duzu azalduta, xehetasun osoz, nola egiten den eskaera (beti GAUR bidez, INOIZ EZ paperean).

7.- **Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak** ikasle@ehu.eus **KONTUA ERABILIKO DU** nazioarteko mugikortasun programekin zerikusia duen edozer komunikatzeko. Beraz, ohitu zaitez kontu hori erabiltzera. Gainera badakizu, helbide horretan harturiko mezuak zure helbide pertsonalera bideratu ditzakezula.